

Mila esker EIZIERi, Euskal Editoreen Elkarteari, Euskal Idazleen Elkarteari, Irudigileen Elkarte Profesionalari eta Galtzagorri Elkarteari sari hau emateagatik, eta mila esker ekitaldi hau antolatu duzuenoi.

Holako sari bat jasotzean ezinbestekoa zait begirada atzera bota, eta hona zergatik iritsi naizen gogora ekartzea.

Hemen banago, lehenik eta behin, ama zenarengatik da. Hola esanda, pellokeria galanta dirudi, baina kontua da mundura ekartzeaz gain, nire joan-etorri eta ibilera ez oso zuzenen ondorioz, 1978an, 1971n hasitako karrerako azken urtea falta zitzaidanean, esan zidala: "Hi, aizak, falta deken hori bukatzak! Nahi deken egintzak, baina BUKATZAK!" Eta kaso egin niolako.

Nire adinekoek ez dute argibiderik behar karrera erdi zintzilik izateari buruz. Kontua da batzuek, urte beltz haietan, denbora gehiago ematen genuela EUTGko tabernan Linguistika erromanikoa ikasten baino. Askoz premiazkoagoa zen faxismoarekin nola bukatu eta Neguko Jauregia nola mendean hartu eztabaidatzea Alde Zaharreko tabernetan eta hango eta hemengo bilera-zoko ilunetan. Horregatik behar izan nuen amaren agindu zorrotz hori. Barkatuko didazue tonu "txolin" samar hau hartzea, baina, badakizue, adinaren kontuak dira.

Dena dela, jesuiten ikastetxe horretara etorri baino lehen, beste bi ordenatako fraileak saiatu ziren niri txikitatik bide ona erakusten. Tolosako eskolapioak lehenbizi. Eta urte beltz haietan -umea nintzen arren, seguru aski Espainiako Historia eta Falange zer zen ikasteko batere amorraziorik ez nuelako- hango apaiz nafar batek azal beltzeko liburu batekin jo ninduen buruan behin: sekulako kankarrekoa eman zidan zerekin?, eta brebiarioarekin, apaizen otoitz-liburuarekin alegia. Liburuenganako zaletasuna piztu nahi ote zidan hain metodo drastikoaren bidez? "A Dios rogando y con el breviario dando" gaizki ikasia ote zuen apaiz hark esaera zaharra? Nork daki? Beharbada neuronaren batzuk hondatuko zizkidan, eta horri esker nago gaur hemen. Ordurako bagenekien, ba, denok ume txikiei kankarrekoak ematea arriskutsua dela!!!

Baina etxeko euskara txukuntzen eta nire baitan sendotzen hastea Arantzazuko fraileei zor diet, han eman baintuen 5 urte. Zuzenean, Bitoriano Gandiaga zenari -hura izan baitzen nire lehenbiziko euskara-irakasle-, zeharka Joseba Intxaustiri (makina bat ordu sartu genituen haren Euskal Aditza ikasten) eta Aita Villasante zenari -haren bitartez ezagutu bainuen Axular, eta ikasi "Munduko gauza guztiek kondentzen dutela alferra", eta "Guero esaten duenak bego dioela". Hiru horiek aipatu ditut, baina ez nituzke ahaztu beharko Jose Azurmendi eta *Jakin* taldea, han irakurri baintuen aldizkari horren lehen zenbakiak 1970 inguruan.

Beraz, belarrondoko batzuez aparte, liburuenganako zaletasuna han areagotu zitzaidan, eta, horrela, 13-14 urterekin, gogoan dut Tolosara oporretan etorri,

liburu-denda batera sartu, eta nere gisa erosi nuela Erasmo Rotterdam-ekoaren *Elogio de la locura* liburua (Espasa Calpe-ko Austral Bilduma, 28 pta). Seguru aski, Elizak debekatutako zerbaiten kutsua hartzen niolako. Gerora, 15en bat urte nituela, gogoratzen naiz santuen bizitzak irakurri beharrean etxetik eraman eta ezkutuan nituen libururen batzuk irakurtzen harrapatu, eta kendu egin zizkidatela. Debeku eta errequisa horiek –ez dago dudarik– areagotu egin zidaten irakurzaletasuna.

Donostian karrera egiten hasi nintzen urteetan areagotu zen nire euskaltzaletasuna. Donostian egin nintzen Patri Urkizu, Mikel Arregi eta Koldo Izagirre idazleen adiskide. Patriren bidez ezagutu nuen Jon Miranderen poesia (eta Txomin Peillenek eta biek Parisen argitaratzen zuten *Igela* aldizkaria). Patri Urkizuren bidez agertu nintzen Elkar argitaletxean Miranderen poemen bildumarekin. Handik laster, etxe horretan argitaratu zizkidaten *Karteroak beti bi aldiz deitzen du* eta *1280 arima* nobela beltzak. Azal beltzeko liburu harekin emandako kankarrekoaren kalte kolateralak ote?

Hala ere, ezin ahaztu, noski, handik urte batzuetara 1989ko apirilaren 14an Joseba Urteaga adiskidearekin *Igela* argitaletxea sortu nuelako nagoela gaur hemen. Mirande eta Peillenen *Igela* Euskaldun heterodoxoen errebista baldin bazen, gure argitaletxea ez zen oso ortodoxoa izango. Erro-errotik eta abiapuntutik beretik hartu zuen bide harrigarri samarra: literatura itzulia argitaratzeko sortu ginen. Gaurtik begiratuta amets edo eldarnio itxura gehiago du. Urte mordoxka eman dugu horretan, ia 25. *Igela* Irabazi Gutxi Eta Lan Askoren anagrama izan zitekeela bururatu zitzaidan halako batean, non “gutxi” esatea asko den eta “asko” esatea gutxi den.

Dena dela, egin dugun guztia, noski, ezinezkoa izango zen adiskide on eta eskuzabalez inguratu ez bagina. Lehenik aipatu behar ditut beren laguntza eman diguten itzultzaileak, bereziki Fernando Rey, Pello Lizarralde, Matías Múgica, Maria Garikano, Joxemari Iturralde, Miel A. Elustondo, Juan Garzia Garmendia, Koldo Izagirre –guardia zaharreko batzuk aipatzeko, barka diezadatela aipatu ez ditudanak–, edo Arantzazu Royo Manterola, Itziar Diez de Ultzurrun, Usoa Wyssenbach eta Esti Lizaso –gazteagoetan–. Eskerrak, baita ere, alde grafikoan guretzat lan egin dutenei: José Manuel Matari (besteak beste hark egin baita *Igela* argitaletxearen anagrama), Dulce María Rodríguez zenari eta Maria Cuetori (haiei zor diegu Literatura bildumaren azalen diseinua) Zaldi Eroari, Antton Olariagari eta Joxemi Goyenari; eskerrak, baita ere, hainbat aldiz arazo teknikoak konpontzen lagundu digun Joseluis Agoteri eta azken garaiotan gure argitaletxearen itxura (web-ekoa, alegia) hobetzen lagundu digun Eider Iglesias webgileari.

Horien guztien laguntzarik gabe ez ginen gaur iritsi garen lekura iritsiko. Eskerrak baita ere zuzenean edo zeharka laguntza eman diguten erakundeei: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Diputazioa, Nafarroako Gobernua –garai batekoa ez oraingoa– edo Europar Batasuna.

Baina horiek guztiek adinako garrantzia dute, dudarik gabe, 25 urteko ibilbidean gureganako hurbiltasuna erakutsiz, gure lanei estimazioa egin, eta bultzatu dituztenek. Eskerrik bihotzekoenak guztiei.

Aspaldiko garaiez gehiegi hitz egin badut ere, gauza bat dago garbi etorkizunari dagokionez: emakumez jantzia datorrela, lehentxeago aipatutako izenen zerrendari begiratzen badiogu behintzat. Emakumeoi dagokizue, beraz, aro berri honetan zeuen lekua hartzea.

Ikusten denez, *Iya guriak egin* du kantatzen hasteko adina iritsi zaidan arren, ari dira jaiotzen berriak. Beraz, nik lasai emango ditut bi pauso atzera, eta utziko dizuet lekua pauso bat aurrera eman nahi duzuen guztioi, egokien iruditzen zaizuen ildotik jarrai dezazuen eta Euskal Herriaren onerako Euskal Liburuari etorkizun oparoa eman diezaiozuen. Halabiz.